



Arartekoaren 2014R-2277-13 ebazpena, 2014ko apirilaren 22koa. Horren bidez, Galdamesko Udalari gomendatzen zaio, Bilbao Bizkaiko Ur Partzuergoari datuak ematean, xede horretarako beharrezkoak direnak bakarrik eman diezazkion eta auzotarrei emandako erregistroen eduki zehatzaren berri eman diezaien.

Aurrekariak

1. Galdamesko Udaleko hainbat auzotarrek Arartekoari jakinarazi diote, tokiko erakunde hori Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartzearen ondotik, udalak haien datuak partzuergo horri eman dizkiola, baita banku-helbideratzearen datuak ere.

Horren ondorioz, tasen likidazioak Kutxabanki bidali zaizkio eta partzuergoaren aldeko kontuko zordunketari ekin dio, tartean udaleko informaziorik eta baimenik izan gabe.

Interesdunaren ustez, ez dute aipatu faktura ordaindu behar, ez baitago ordainarazpen hori justifikatzen duen kontratuzko harremanik partzuergoarekin eta, haren ustez, bai udalak bai banku-erakundeak datu pertsonalen babeserako legea urratu dute.

2. Erreklamazio hori izapidetzeko onartuta, Galdamesko Udalari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko buruari zenbait idazki helarazi dizkiegu aurkeztutako kexan jasotako alderdien gaineko informazioa eskatuz, udalaren eta partzuergoaren artean kexagilearen datuak emateko jarraitutako prozedura eta lagapen-erabakiak oinarri izandako funtsak (hitzarmena edo protokoloa) eta datuak ateratzeko fitxategiak gehitutako datuen irismena barne, baita erabiltzaileen informazioari lotutako alderdiei eta aipatu lagapenerako behin-behineko baimen-eskaeraren gainekoa ere.
3. Kutxabank erakunde pribatua dela kontuan hartuta eta Ararteko erakundearen eskumenak euskal herri-administrazioen jardueren kontrolera mugatuta daudenez, ez zen egokia haren inguruan jardueraren bat abiaraztea.

Informazio hau ikusita eta kexagileek alegatutako gainerako inguruabarrak aintzat hartuta, eta edukiak aztertu ondoren, hona hemen ondoko

Gogoetak

1. Galdamesko Udaletik Uren Partzuergoan harpidetza duten horien datu pertsonalen lagapenak eragin du kexa hau, hain zuzen, udalerriko auzotarrei baimenik eskatu gabe eta informaziorik eman gabe bideratutakoak.





Informazio publikoaren eta Ararteko erakundeak espedientearen izapidean emandako erantzunen bidez, honako hau egiaztatu da:

- a) 2013ko otsailaren 15ean, Galdamesko Udaleko osoko bilkurak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan gehitzea onartu zuen, baita bertako baldintza orokorrak eta zehatzak ere.
- b) Baldintza horien artean datu pertsonalak emateko protokolo bat sinatu zen, 2013ko martxoaren 25ean gauzatutakoa eta aipatu protokoloan fitxategiaren egitura, entregarako baliabidea eta ezarritako segurtasun neurriak zehaztu ziren. Fitxategiaren egitura honako hau da: izena/abizenak/ helbidea/ posta kodea/telefonoa/bankuko datuak/kontagailua.
- c) Udaleko ur hornikuntza eta saneamendu sareko kudeaketaz arduratzen denez eta aipatu erabakiak kontuan hartuta, partzuergoak - harpidedunen kudeaketarako prozesuaren zati den aldetik-kontsumoaren gaineko tasen likidazioak egin zituen eta, hala, aipatu banku-erakundeei bidali zizkieten udalak helarazitako fitxategian kobratze aldera.

Ez dago jasota, Galdamesko Udalari informazio hori berariaz eskatu bazaio ere, banku-helbideratzea tasa horren likidaziorako edo udaleko gainontzekoetarako nahitaezko baldintza gisa ezarri zenik, ezta ematearen erabiltzaileei haien datu pertsonalak eman izana jakinarazi zitzaienik ere, lagapen horretako fitxategien egitura zehatzaren berri izan zezaten eta haien berrespen eta ezeztapen eskubideak balia zitzaten.

2. Aplika zitezkeen eta aipatu erakundeen artean bideratutako datuen ematearen oinarriko balio zezakeen oinarri juridikoak izaera anitza dauka:

- Datu pertsonalen babeserako legeak:
 - o Datu pertsonalen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko (aurrerantzean DBLO) 4. artikulua¹ eman edo laga daitezkeen datu pertsonalen irismena mugatzen du eta, hala, lortu nahi den xederako hertsiki beharrezkoak izango direnak ezartzen dira.
 - o Informaziorako eskubidea jasotzen duen lege horren 5. artikulua² bat etorritik, datuak interesdunaren eskutik

¹ 4. artikulua 1. Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko bil daitezke bakarrik, bai eta tratamendu horren mende jartzeko ere, datu horiek egoki eta bidezkoak izateaz gain, gehiegizkoak ez direnean, datu horiek zein esparrutan eta zein xedekin lortu eta halakoei begira. Gainera, esparru eta xedeak zehatzak, argiak eta legitimoak izan beharko dira.

² 5. artikulua: 4. Izaera pertsonaleko datuak interesdunarengandik jaso ez direnean, fitxategiaren arduradunak edo horren ordezkariak esanbidez informazio zehatza eta zalantzarik gabea eman beharko dio interesdunari, datuak erregistratu eta hurrengo hiru hilabeteetan, tratamenduaren edukia, datuen jatorria eta artikulua honen 1. idatz-zatiko a), d) eta e) letretan jasotakoaren inguruan, salbu eta interesdunari aurretiaz eman zaionean horren gaineko informazioa.



- lortu ez direnean, fitxategiko arduradunak interesdunari tratamenduaren edukiaren berri eman beharko dio.
- 12. artikulua³ xedatzen du daturik eman edo laga ez dela ulertuko dela tratamenduko arduradunari zerbitzu bat emateko beharrezkoa suertatzen zaionean (kasu horretan ez da interesdunen baimena behar).
 - DBLOren 5. artikulua inguruan datuen babeserako legearen araudiari buruzko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuko⁴ 18. eta 19. artikuluen interpretaziotik ondorioztatu da eragindakoei informazioa emateko premia, lagapena edo ematea ez egon arren.
- Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legearen 2. artikulua⁵ herri-administrazioen kontzeptuaren irismena xedatzen du eta 4. artikuluan haien harremanek elkarrenganako lankidetzeta eta laguntza aktiboaren inguruan oinarri dituzten printzipioak zehazten dira.
 - Toki Araubidearen Oinarriari buruzko 16.3 artikulua ezartzen du eragindakoaren aurretiko baimenik⁶ gabe udal erroldako datuak eman ahal izango direla kasuan kasuko eskumenak baliatu ahal izateko beharrezkoa denean eta datu horiek garrantzitsuak direnean bakarrik.
3. Arartekoaren ustez, manu horiek eta prozeduren izapidean bildutako informazioa ikusita atera daitezkeen ondorioak honako hauek izango lirateke:
- a) Ez dago akatsik eragindako tokiko erakundeek bideratutako prozeduran eta fitxategiak lagatzeko baliatutako tresnetan: legezko organo batetik dator integraziorako erabakia, udalbatzako akordioa kontuan hartuta egin da eta datuak emateko kasuan kasuko protokoloa sinatu da.

Erabaki horiek oinarri hartuta eta haren araudiari (estatutuak) jarraiki, partzuergoa da ur eta saneamendu zerbitzuko kudeatzaile berria eta,

³12. artikulua 1. Ez da datuen komunikaziotzat joko hirugarren bat datuetara sartzeta, hori beharrezkoa denean tratamenduaren arduradunari zerbitzu bat emateko.

⁴18. artikulua Acreditación del cumplimiento del deber de información. 1. El deber de información al que se refiere el artículo 5 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, deberá llevarse a cabo a través de un medio que permita acreditar su cumplimiento, debiendo conservarse mientras persista el tratamiento de los datos del afectado.

19. artikulua Supuestos especiales: En los supuestos en que se produzca una modificación del responsable del fichero como consecuencia de una operación de fusión, escisión, cesión global de activos y pasivos, aportación o transmisión de negocio o rama de actividad empresarial, o cualquier operación de reestructuración societaria de análoga naturaleza, contemplada por la normativa mercantil, no se producirá cesión de datos, sin perjuicio del cumplimiento por el responsable de lo dispuesto en el artículo 5 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre.

⁵2. artikulua: 2. Horiez gain, herri-administrazioetat joko dira nortasun juridikoa duten zuzenbide publikoko erakundeak ere, edozein herri-administrazioi loturik edo horien mendean daudenean.

⁶16. artikulua: 3 Udalerriko erroldako zehaztasunak doakionaren alde aurreko baimenik gabe emango zaizkie zehaztasunok eska ditzaten beste administrazio publikoei, bakoitzari bere eskumenak betetzeko beharrezkoak dituztenean bakarrik, eta bizilekuari zein egoitzari dagokienez zehaztasunok esanguratsuak diren gaitarako soil-soilik. Balio dezakete, halaber, estatistikako isilekotasunaren menpeko estatistika ofizialak egiteko, Estatistikako Funtzio Publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Legean eta gai horren gainean eskumenak dituzten autonomia erkidegoetako estatistika legeetan aurreikusitako eran.



ondorioz, zerbitzu hori emateko eskatutako fitxategi pertsonal horien tratamenduaren arduradun berria.

Beraz, ezin da esan udalak eta Bilbao Bizkaiko Ur Partzuergoak irregulartasunik burutu dutenik integrazioarako hasiera batean jarraitutako prozeduran, ezta horretarako baliatutako tresnetan ere.

Gauzak horrela, beharrezkoa da azterketak partzuergoari helarazitako bi datu zehatz azpimarratzea. Alegia, DBLOk eskatutako datuen kalitatearekin bat datozen eta eragindako erabiltzaileen informazio-errekerimenduak jarraitu ote diren.

- b) Tokiko bi erakundeek sinatutako protokolutik ondorioztatu denaren arabera (Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak aurkeztutakoak), partzuergoari helarazitako fitxategiek, harpidetutako en udal fitxategietakoek, erroldako datu guztiak biltzen zituzten (pertsona eta haren helbidea identifikatzeko aukera ematen dute), baita kontagailuaren datuak ere; datu horiek guztiak zerbitzua emateko hertsiki beharrezkotzat jo daitezke.

Zehazki, ebazpen honen aurrekarietan adierazi moduan, helarazitako fitxategiaren erregistroak honako egitura hau dauka: izena/ abizenak/ helbidea/ posta kodea/telefonoa/bankuko datuak/kontagailua...

Dena den, banku-helbideratzearen datuak ez dira beharrezkotzat jotzen, ezta ezinbestekotzat ere, eta ez dute DBLOren 4. artikulua eskatutako ezaugarririk eta, hala, desiragarritzat baino ezin ditugu jo –ezin kasutan zorrozki beharrezkotzat- zerbitzuaren kobrantza egin behar duen horrentzat dakarren erraztasunagatik.

Ildo horretan Administrazioarekiko Auzien Bilboko 4. zk.ko Epaitegiaren 378/2011 zk.ko Epaia dio, haren bosgarren oinarri juridikoan, borondatezko aldiko bilketan zerga ordaintzeko hainbat moduren artean hauta daitekeela eta, hala, ulertzen da bankuko datua ez dela beharrezkoa datua DBLOn ezarritakoarekin bat etorritik eta ez dagoela datuen kalitatearen printzipioari lotuta.

Laburbilduz, banku-helbideratzeak dakarren erosotasunik handienak ez dakar zertan datu hori beharrezkoa, egokia edo ez gehiegizkoa izatea lortu nahi den xederako (eragin txikienaren kontzeptuari jarraiki) eta, hortaz, udalak ez zuen lagapen erregistroen artean integratu behar.

- c) Eragindako administrazioek haien erantzunetan esan zuten ez zela beharrezkoa erabiltzaileen aurretiko baimena izatea datuak emateko, betebeharrak horretatik salbuesteko legez aurreikusitako egoera jazo baitzen. Ondorioa hasiera batean zuzena izango litzateke lehen aipatu ditugun arauak kontuan hartuta, baina argi dago beharrezkoa dela bi



salbuespen egitea: 1) tasa kobratzeko banku-helbideratzearen datua beharrezkoa ez bada, datu hori ezin zen eman eta, beraz, datu zehatz hori emateko eragindakoen baimena beharrezkoa izango litzateke; eta 2) edozelan ere, horiek duten informaziorako eskubidea kaltetu gabe egon beharko litzateke eta eskatu ahal izango litzateke eta, hala, udalak (fitxategiaren arduradun zen aldetik) auzotarrei aipatu ematearen eta bertan jasotako datuen berri eman behar zien, AZETA eskubideak baliatu ahal izateko (DBLOren 15., 16. artikuluetan aipatutakoak eta bat datozenak), banku-helbideratzearen datura iristeko.

4. Aurrekoa gorabehera, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko buruak haren erantzunean dagoeneko adierazi duenez, datu pertsonalak berretsi eta ezeztatzeko eskubideak edozein unetan baliatu ditzake interesdunak partzuergoaren aurrean eta, jakina, Galdamesko Udalaren aurrean.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarri duenarekin bat etorritz, honako gomendio hau egin dugu:

GOMENDIOA:

1. Harpidetutakoen banku-helbideratzearen datua, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak zerbitzua emateko beharrezko datua ez denez, Galdamesko Udalak eman ez dezan, aurretik erabiltzaileen berriazko baimena ez badu.
2. Udalak auzotar guztiei lagapenak edo emateak barne hartutako harpidetuen fitxategiaren erregistroko datu pertsonalen edukiaren berri eman diezaien, jakinaren gainean egon daitezen eta, hala badagokio, partzuergoaren aurrean eta udalaren aurrean datu pertsonalak ezeztatu eta berretsi ditzaten.